



**2022KO ABUZTUAREN 1EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko abuztuaren batean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2022ko uztailaren 18an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 40 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, BERROGEITA LAU MILA EHUN ETA HIRUROGEITA ZAZPI euro ETA BERROGEITA HAMALAU zentimo (44.167,54 €)takoa onartzea erabaki da.

III.- PARROKIA ETA IKASTOLAREN ARTEAN AGAUNTZA ERREKAREN GAINEAN OINEZKO PASABIDEA OBRAREN 1. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Parrokia eta Ikastolaren artean Agauntza errekaaren gainean oinezko pasabidea obraren obra zuzendaritza daraman Amaia Salaberria Azantza bideetako ingeniariak, Salaberria Ingenieritza S.L. enpresakoak, lanen lehen obra egiaztagiria egin du. Lehen obra egiaztagiria honen zenbatekoa SEI MILA ETA ZORTZIEHUN euro ETA LAUROGEITA BI zentimo (6.800,82 €) gehi B.E.Z.ri dagokion MILA LAUREHUN ETA HOGETA ZORTZI euro ETA HAMA ZAZPI zentimo (1.428,17 €) da, guztira ZORTZI MILA BERREHUN ETA HOGETA ZORTZI euro ETA LAUROGEITA HEMERETZI zentimo (8.228,99 €).

Obra ziurtagiri honek udal teknikariaren oniritzia du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du dokumentazio tekniko guztia euskaraz izatea oraingoz eskatzen ez badu ere gutxienez obra egiaztagiria euskaraz izan daitezen udalari eskatzen diola saiatzeko.

Bestalde, esan du baita ere Ormazabal zinegotziak, beraiek gai honetan abstenitu egingo direla.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu), lehen obra egiaztagiri hau onartu egin du.

IV.- ARERIAN ZERBITZUAK EMATEAREN KONTRATAZIOAREN ESLEIPENA.-

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Arieriako Zinema eta Ikuskizunen Aretoaren zerbitzuak lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espediente onartu eta lizitazio deialdia egitea erabaki zuen.

Lehiaketaren deialdia kontratatzailearen profilean argitaratu zen 2022ko maiatzaren 30ean eta proposamenak aurkezteko jarritako epean, 2 proposamen aurkeztu ziren.

Aurkeztutako enpresak honako hauek dira:

1. HTK Film, S.L.
2. GOIKUS KUDEAKETA, S.L.

Aurkeztutako bi enpresak onartuak izan ziren.

Balio-judizio baten arabera haztatu beharreko irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioa aztertu ondoren, puntuazio hau lortu dute aurkeztutako enpresek:

ENPRESAK	Kudeaketa-proiektua (30 p.)
HTK Film, S.L.	23,75
GOIKUS KUDEAKETA, S.L.	24,00

Proposamen ekonomikoak hauek izan dira:

KONTZEPTUA	ENPRESAK	
	HTK FILM S.L.	GOIKUS KUDEAKETA S.L.
Proiektatutako pelikula bakoitzeko	300,00 €	350,00 €
Proiektorea erabiltzeagatik, ekitaldiko	25,00 €	25,00 €
Atezain eta hall zaintza, ekitaldiko	60,00 €	60,00 €
Leihatila zerbitzua, ekitaldiko	45,00 €	45,00 €
Txarteldegira sartzeko sistema, ekitaldiko	0,00 €	10,00 €
Laguntza teknikoko lanengatik, orduko	25,00 €	25,00 €
Zamaketa lanengatik, orduko	15,00 €	15,00 €
Instalazioen mantentze lanengatik, urteko	200,00 €	200,00 €

Ondorioz enpresa lizitatzailerik lortutako puntuazioa guztira ondorengoa da:

Enpresa	Proposamen teknikoa	Proposamen ekonomikoa	Guztira
HTK Film S.L.	23,75	70,00	93,75
GOIKUS KUDEAKETA S.L.	24,00	56,67	80,67

Ondorioz, eta lehen sailkatua HTK Film S.L. izanik, hamar egun balioduneko epean honako hauek aurkezteko eskatu zitzaion:

- 1.- Kaudimen baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko agiriak.



- 2.- Zerga betebeharreari eta gizarte segurantzarekikoei dagokionean egunean dagoela.
- 3.- Zortzi mila eta hirurogeita bost euroko (8.065€) behin betiko bermea eratu izana egi-aztatzen duen dokumentazioa.

HTK Film S.L. enpresak emandako epean aurkeztu ditu eskatutakoak.

Hau honela, kontratazio mahaiak HTK Film S.L.ren aldeko esleipen proposamena egin du.

Hau guztia honela, eta gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Areriako zinema eta ikuskizunen aretoaren zerbitzuen kontratazioaren esleipena HTK Film S.L. enpresari egitea erabaki du.

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura Batzordetik egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako dirulaguntza hau onartzea erabaki du:

Oin arin dantza taldea.-

Dantzari Txiki eguna eta San Juan Su eguna antolatzeagatik 4.983,28 € ematea. Orain arte justifikatutako gastuen arabera ordainketa bi zatitan egingo da, orain 3.683,28 € ordainduz.

Dirulaguntza hau udal aurrekontuaren 1 480.03.338.00 partidatik egingo da.

VI.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK .-

Euskara Batzordetik Tokiko Gobernu Batzarrera dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, honako erabaki hau hartu da:

- Euskara ko eskolera joateagatik.-

2021-2022 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntza ematea. Bi ikasle dira, bere espedientean dauden datuen arabera, eta guztira 370,06€ emango dira.

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik egingo da.

VII.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAN ALOKAIJUARENGATIKO HOBARIA.

Udal honek %50eko hobaria araututa dauka Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan Alokabideri emandako etxebizitzentzat edo hemendik kanpo alokatutako etxebizitzentzako.

2021 ekitaldian zerga ordaindu eta egoera horretakoren batean daudenek hobari hori eskatu ahal zezaten 2022ko maiatzaren 2tik 20ra bitarteko epea ireki zen.

Epe horretan aurkeztutako eskaerak, eta hobaria lortzeko baldintzak betetzen dituzten ala ez aztertu ondoren, ogasun batzordeko zinegotzi arduradunak, hobari horiek onartzeko proposamena egin du.

Proposamenean, 61 laguni guztira BOST MILA EHUN ETA BI euro ETA BERROGEI-TA HAMABI zentimo (5.102,52 €) hobaritzea proposatu da, bakoitzari bere espedientearen jasotako zenbatekoaren arabera.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, hobari hauek onartzea erabaki du.

Hobari hauek sarreraren aurrekontuko 2 112.02.000.00 partida gutxituz egingo da.

VIII.- LANDALURREKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa lurreko batzordetik baserritar ekoizleei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:

- Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei bigarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

Baserritarra	Zenbatekoa
Aitor Iztueta Barandiaran	445 €
Iker Sukia Mesas	540 €
GUZTIRA	985 €

Ordainketa aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik egingo da.

IX.- JARDUERA EKONOMIKOKO DIRULAGUNTZAK.-

Jarduera ekonomikoko batzordetik merkatariei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hauek erabaki ditu:

- Tiketbai softwarea euskaraz.-

Merkataria	Zenbatekoa
Mireia Estevez Rodriguez (Koboloi)	250,00€
GUZTIRA	250,00 €



- Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei seigarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:



LAZKAOKO
UDALA

Merkataria	Zenbatekoa
ALBERTO SUKIA (SUKIA HARATEGIA)	25,00€
GUZTIRA	25,00€

Ordainketa hauengatik udalari dagokion gastua aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik ordainduko da.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko hirurak eta laurden direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

